

## IRABAZI ITURRIAK

Proiektuaren irabazi iturriak zehazterakoan hainbat diru-sarrera mota desberdinu ditugu. Alde batetik, bazkideek ordainduko duten hileko kuota (merkatu segmentazioan azalduta). Bestalde, ez bazkideek jardueretan parte hartzeagatik ordainduko duten diru kantitatea, segun eta zein den jarduera hori kantitate desberdina izango da.

Gainera salduko ditugun produktuen (bambuz egindako hortz eskubilak, hilerokorako kopa...) bitartez irabaziak jasoko ditugu ere.

Aipatu beharrekoa da lortuko dugun dirua proiektuaren haztapenera bideratuko dugula, era horretan produktu gehiago eta desberdinak erosi, irteera gehiago eta antizagoak antolatu eta elkarte gehiagorekin harremandu ahal izango gara.

